batzuek dituzten partaidetzei egotzi dakizkiekeen irabazi onar-
garrien zenbatekoa haxe izango da: zergapetze maila txikia
duen entitate eratzaileraren kontabilitate irabazi garbiak bere ira-
bazi onargarrien berdinak izango balira, azken entitate nagusiaren
egoera-orri finantzario bateratuaren erabilitako finantza konta-
bilitateko arau onargarriaren printzipioak aplikatuta titular horiei
egozgarritzat joko zena; gainera, baldintza hauek ere beharko li-
rateke:

a) Entitate nagusiak kontabilitate arau horren arabera
prestatzea egoera-orri finantzario bateratuak («finantza egoera-
orri bateratu hipotetikoak», aurrerantzean).

b) Entitate nagusiak kontrol partaidetza hori edukitzea
zergapetze maila txikia duen entitate eratzaileran, eta zergape-
tze maila txikia duen entitate eratzaileraren diru-sarrera eta gastu
guztiak bateratuta agertzea entitate nagusiaren diru-sarrera eta
gastuekin finantza egoera-orri bateratu hipotetikoetan, integra-
zio globalaren metodoa aplikatuta.

c) Zergapetze maila txikia duen entitate eratzaileraren ira-
bazi onargarri guztiak taldeko entitateak ez diren pertsonen
egindako eragiketei egotzi ahal izatea; eta

d) Entitate nagusiak zuzenean edo zeharka ez dituen par-
taidetza guztiak taldeko entitateak ez diren pertsonen esku ego-
tea.

27. artikulua. Konpentsazio arauak.

Entitate nagusi batek, foru arau honen 6. artikuluko 3. apar-
tatuaren arabera zergaren zergadun denak, zeharkako partaide-
tza bat baldin badu zergaldian, zergapetze maila txikia duen en-
titate eratzailer batean, izan tarteko entitate nagusi baten bidez,
izan partzialki partaidetutako entitate nagusi baten bitartez, eta
tarteko entitate hori edo partzialki partaidetua errentak integra-
tzeko erregela onargarri bati lotuta badago, zergadun horrek zor
duen zerga osagarri primarioa murriztu egingo da tarteko entitate
nagusiak edo partzialki partaidetutako entitate nagusiak foru
arau honen 26. artikuluko 2. apartatuaren arabera zerga osaga-
rritik egotzi behar zaien zatiaren zenbatekoan.

V. KAPITULUA. ZERGA OSAGARRI SEKUNDARIOA: BEHAR BESTE ZERGAPETU GABEKO MOZKINAK INTEGRATZEKO ERREGELA APLIKATZEA

28. artikulua. Behar beste zergapetu gabeko mozkinen
erregela aplikatzea.

1. Talde multinazional baten azken entitate nagusia erren-
tak integratzeko erregela onargarri bat aplikatzen ez duen hiru-
garren jurisdikzio batean badago, edo entitate nagusi hori baz-
tertutako entitate bat bada, foru arau honen 6. artikuluko 4.
apartatuan aipatzen diren entitate eratzailerak zergapetuta
egongo dira, zergaldian, behar beste zergapetu gabeko mozkinen
erregela foru arau honen 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuta
Espainiako lurraldeari egotzitako zerga osagarriaren zenbate-
koan.

2. Talde multinazional baten azken entitate nagusia zer-
gapetze maila txikia duen hirugarren jurisdikzio batean badago,
foru arau honen 6. artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren enti-
tate eratzailerak entitate nagusi horri eta hark jurisdikzio berean
dituen entitate eratzailerak dagokien zerga osagarriarekin zerga-
petuko dira zergaldian. Zerga horren zenbatekoa behar beste
zergapetu gabeko mozkinen erregelaren aplikazioagatik foru
arau honen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera Espainiako
lurraldeari egotzitakoa izango da.

constitutiva con un nivel impositivo bajo en el periodo impositivo,
minoradas en el importe de dichas ganancias imputables a las
participaciones ostentadas por otros titulares, entre las ganancias
admisibles de dicha entidad constitutiva.

El importe de las ganancias admisibles atribuibles a las par-
ticipaciones en una entidad constitutiva con un nivel impositivo
bajo ostentadas por otros titulares será el importe que se habría
considerado atribuible a dichos titulares según los principios de
la norma de contabilidad financiera aceptable utilizada en los
estados financieros consolidados de la entidad matriz última si
las ganancias netas contables de la entidad constitutiva con un
nivel impositivo bajo fueran iguales a sus ganancias admisibles
y:

a) La entidad matriz hubiera elaborado los estados finan-
cieros consolidados de conformidad con dicha norma de conta-
bilidad (en lo sucesivo, «estados financieros consolidados ipo-
téticos»).

b) La entidad matriz fuera titular de tal participación de
control en la entidad constitutiva con un nivel impositivo bajo y
todos los ingresos y gastos de la entidad constitutiva con un
nivel impositivo bajo estuvieran consolidados por el método de
integración global con los de la entidad matriz en los estados fi-
nancieros consolidados hipotéticos.

c) Todas las ganancias admisibles de la entidad constitui-
va con un nivel impositivo bajo fueran atribuibles a operaciones
con personas que no son entidades del grupo; y

d) Todas las participaciones que no se ostenten directa o
indirectamente por la entidad matriz fueran ostentadas por per-
sonas distintas de las entidades del grupo.

Artículo 27. Normas de compensación.

Cuando una entidad matriz, contribuyente de conformidad
con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 6 de esta norma
foral, ostente una participación indirecta en una entidad cons-
titutiva con un nivel impositivo bajo, a través de una entidad ma-
triz intermedia o de una entidad matriz parcialmente participada
que esté sujeta a una regla de inclusión de rentas admisible, en
el período impositivo, el impuesto complementario primario adeu-
dado por dicha contribuyente se reducirá en un importe igual a
la parte del impuesto complementario adeudado por la entidad
matriz intermedia o la entidad matriz parcialmente participada
que deba serle atribuida con arreglo al apartado 2 del artículo
26 de esta norma foral.

CAPÍTULO V. IMPUESTO COMPLEMENTARIO SECUNDARIO: APLICACIÓN DE LA REGLA DE INCLUSIÓN DE BENEFICIOS INSUFICIENTEMENTE GRAVADOS

Artículo 28. Aplicación de la regla de beneficios insuficien-
temente gravados.

1. Cuando la entidad matriz última de un grupo multina-
cional radique en una tercera jurisdicción que no aplique una re-
gla de inclusión de rentas admisible, o cuando dicha matriz sea
una entidad excluida, las entidades constitutivas a que se refiere
el apartado 4 del artículo 6 de esta norma foral estarán sujetas,
en el período impositivo, al importe del impuesto complementario
atribuido a territorio español en virtud de la regla de beneficios
insuficientemente gravados, de conformidad con lo dispuesto
en el artículo 29 de esta norma foral.

2. Cuando la entidad matriz última de un grupo multina-
cional radique en una tercera jurisdicción con un nivel impositivo
bajo, las entidades constitutivas a que se refiere el apartado 4
del artículo 6 de esta norma foral estarán sujetas, en el período
impositivo, al importe del impuesto complementario correspon-
diente a dicha entidad matriz última y a sus entidades constitu-
tivas situadas en la misma jurisdicción, atribuido a territorio es-
pañol en virtud de la regla de beneficios insuficientemente
gravados, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de
esta norma foral.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko zergapetze maila txikia duen jurisdikzioa azken entitate nagusia errentak integrazteko erregela bati lotuta dagoenean zergaldian, ez bere buruari dagokionez ez zergapetze maila txikiko jurisdikzioan katuak dituen entitate eratzaileei dagokienez.

3. Talde multinazional baten azken entitate nagusia kokatuta dagoen estatu kideak aukeratzeko badu errentak integrazteko erregela eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela modu geroratuan aplikatzea Kontseiluaren abenduaren 15eko (EB) 2022/2523 Zuzentarauak 50. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoarekin bat, foru arau honen 6. artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren entitate eratzaile zergadunak artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den zerga osagarriaren zenbatekoarekin zergapetuko dira, betiere aukera hori indarrean dagoen zergaldietan. Zerga horren zenbatekoa behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelaren aplikazioagatik foru arau honen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera Espainiako lurraldeari egotzitakoa izango da.

4. Entitate eratzaileak inbertsio entitateak badira, ez zaie aplikatuko artikuluko honetan xedatutakoa.

29. artikulua. *Behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelarekin erlazioatutako zerga osagarri sekundarioaren kalkulua eta egozpena.*

1. Espainiako lurraldeari egotzi beharreko zerga osagarri sekundarioaren zenbatekoa kalkulatzeko, biderketa hau egin behar da: behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelarekin lotutako zerga osagarriaren zenbateko osoa, artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztua, bider Espainiako lurraldean behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelaren portzentajea, artikuluko 5. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztua.

2. Zergaldian behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelatik ondorioztatzen den zerga osagarri sekundarioaren zenbateko osoa honako hau izango da: talde multinazionalak zergapetze maila txikiko jurisdikzio batean daukan entitate eratzaile bakoitzari buruz foru arau honen 24. artikuluan arabera zergaldian kalkulaturako zerga osagarrien batura, artikuluko 3. eta 4. apartatuetan ezartzen diren doikuntzak aplikatuta, hala badagokio.

3. Behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelaren aplikaziotik ondorioztatzen den zerga osagarria zergapetze maila txikia duen entitate eratzaile bati dagokionean, zero izango da, baldin eta azken entitate nagusiari entitate eratzaile horretan zergaldian dagozkion partaidetza guztiak, entitate eratzaile horri dagokionez errentak integrazteko erregela onargarri bat aplikatu behar duen entitate nagusi baten edo gehiagoren esku badaude zergaldi horretan, dela zuzenean dela zeharka.

4. Aurreko 3. apartatuan xedatutakoa aplikagarria ez den kasuetan, behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelaren aplikaziotik ondorioztatzen den zerga osagarria zergapetze maila txikiko entitate eratzaile bati badagokio, haren zenbatekotik murriztuko da entitate eratzaile horren zerga osagarritik azken entitate nagusiari egozgarri zaion zatia, errentak integrazteko erregela onargarri baten arabera zergapetu dena.

5. Behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelagatik Espainiako lurraldeari dagokion portzentajea zergaldi eta talde multinazional bakoitzerako kalkulaturako da, hurrengo bi faktore hauek batuz:

i) Espainiako lurraldeko enplegatu kopuruaren eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela aplikatzen duten jurisdikzio guztietako enplegatu kopuruaren arteko zatiduraren 100eko 50.

ii) Espainiako lurraldeko aktibo materialen balio osoaren eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela aplikatzen duten jurisdikzio guztietako aktibo materialen balio osoaren arteko zatiduraren 100eko 50.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será de aplicación cuando la entidad matriz última en la jurisdicción con un nivel impositivo bajo esté sujeta, en el período impositivo, a una regla de inclusión de rentas admisible en relación consigo misma y con sus entidades constitutivas radicadas en dicha jurisdicción con un nivel impositivo bajo.

3. Cuando la entidad matriz última de un grupo multinacional radique en un Estado miembro que haya optado por la aplicación diferida de las reglas de inclusión de rentas y de beneficios insuficientemente gravados de conformidad con lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 50 de la Directiva (UE) 2022/2523 del Consejo, de 15 de diciembre, las entidades constitutivas contribuyentes a que se refiere el apartado 4 del artículo 6 de esta norma foral estarán sujetas al importe del impuesto complementario a que se refieren los apartados 1 y 2 de este artículo, atribuido a territorio español en virtud de la regla de beneficios insuficientemente gravados de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de esta norma foral, durante los períodos impositivos en que esté vigente dicha opción.

4. Las entidades constitutivas que sean entidades de inversión no estarán sujetas a lo dispuesto en este artículo.

Artículo 29. *Cálculo y atribución del impuesto complementario secundario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados.*

1. El importe del impuesto complementario secundario que corresponde atribuir a territorio español se calculará multiplicando el importe total del impuesto complementario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados, determinado de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 de este artículo, por el porcentaje de la regla de beneficios insuficientemente gravados de territorio español, determinado de conformidad con lo dispuesto en el apartado 5 del presente artículo.

2. El importe total del impuesto complementario secundario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados en el período impositivo será igual a la suma de los impuestos complementarios calculados, en el período impositivo, para cada entidad constitutiva del grupo multinacional radicada en una jurisdicción con un nivel impositivo bajo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 24 de esta norma foral, sin perjuicio de los ajustes establecidos en los apartados 3 y 4 del presente artículo.

3. El impuesto complementario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados de una entidad constitutiva con un nivel impositivo bajo será igual a cero en aquellos casos en los que, en el período impositivo, todas las participaciones en dicha entidad constitutiva correspondientes a la entidad matriz última se ostenten, directa o indirectamente, en dicho período impositivo por una o más entidades matrices obligadas a aplicar una regla de inclusión de rentas admisible con respecto a dicha entidad constitutiva.

4. Cuando no sea de aplicación lo dispuesto en el apartado 3 anterior, el impuesto complementario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados de una entidad constitutiva con un nivel impositivo bajo se reducirá en la parte atribuible a la entidad matriz última del Impuesto Complementario de dicha entidad constitutiva que se grave con arreglo a una regla de inclusión de rentas admisible.

5. El porcentaje de la regla de beneficios insuficientemente gravados correspondiente al territorio español se calculará, para cada período impositivo y grupo multinacional, sumando los dos factores siguientes:

i) El 50 por 100 del cociente entre el número de empleados en territorio español y el número de empleados de todas las jurisdicciones con regla de beneficios insuficientemente gravados.

ii) El 50 por 100 del cociente entre el valor total de los activos materiales en territorio español y el valor total de los activos materiales de todas las jurisdicciones con regla de beneficios insuficientemente gravados.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hau ulertuko da:

a) Espainiako lurraldeko langile kopurua talde multinazionalaren parte diren eta Espainiako lurraldean kokatuta dauden entitate guztietako langile kopuru osoa izango da.

b) Behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela bat aplikatzen duten jurisdikzio guztietako langile kopuru osoa talde multinazionalaren parte diren entitate guztietako langile kopuru osoa izango da, betiere entitate horiek behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela onargarri bat indarrean duen jurisdikzio batean kokatuta badaude.

c) Espainiako lurraldeko aktibo materialen balio osoa talde multinazionalaren parte diren eta Espainiako lurraldean kokatuta dauden entitate guztien aktibo materialen kontabilitate balio garbiaren batura izango da.

d) Behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela aplikatzen duten jurisdikzio guztietako aktibo materialen balio osoa talde multinazionalaren parte diren entitate guztien aktibo materialen kontabilitate balio garbiaren batura izango da, betiere entitate horiek behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela onargarri bat indarrean duen jurisdikzio batean kokatuta badaude.

6. Langile kopurua dena delako jurisdikzioan dauden entitate eratzailerak guztien aktibo materialak sartuko dira, baina kanpoan geratuko dira beti bai eskudirua eta antzeko ordainbideak, eta bai aktibo ukiezin edo finantzarioak.

Aktibo materialen barruan dena delako jurisdikzioan dauden entitate eratzailerak guztien aktibo materialak sartuko dira, baina kanpoan geratuko dira beti bai eskudirua eta antzeko ordainbideak, eta bai aktibo ukiezin edo finantzarioak.

7. Langileen soldata kostuak establezimendu iraunkor baten finantza kontabilitate bereizian jasota badaude foru arau honen 12. artikuluko 1. apartatuaren arabera, eta kontabilitate hori foru arau honen 12. artikuluko 2. apartatuan xedatutako eran doitu bada, langile horiek establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen jurisdikzioari egotziko zaizkio.

Aktibo materialak establezimendu iraunkor baten finantza kontabilitate bereizian jasota badaude foru arau honen 12. artikuluko 1. apartatuaren arabera, eta kontabilitate hori foru arau honen 12. artikuluko 2. apartatuan xedatutako eran doitu bada, establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen jurisdikzioari egotziko zaizkio.

Establezimendu iraunkor baten jurisdikzioari egotzen zaizkion langileak eta aktibo materialak ez dira kontuan hartuko entitate nagusiaren jurisdikzioari langile kopurua eta aktibo materialak kalkulatzeko.

Inbertsio entitate baten langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia artikuluko 5. apartatuan ezarritako formulatik kanpo geratuko dira.

Entitate garden baten langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia artikuluko 5. apartatuan aipatutako formulatik kanpo geratuko dira, non eta horiek ez zaizkien egotzen establezimendu iraunkor bati, edo, halakorik ezean, entitate gardenaren sortu den jurisdikzioan kokatutako entitate eratzailerak.

8. Aurreko 5. apartatuan xedatutakoa gorabehera, ulertuko da jurisdikzio batean behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelak talde multinazionalarentzat zergaldian dakarren portzentajea zero dela, baldin eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelagatik jurisdikzio horri aurreko zergaldi batean egotzi zaion zerga osagarriaren zenbatekoak berekin ekarri badu talde multinazional horrek jurisdikzio horretan dituen entitate

A efectos de lo dispuesto en este apartado se considerará que:

a) El número de trabajadores en territorio español es el número total de trabajadores de todas las entidades constitutivas del grupo multinacional radicadas en territorio español.

b) El número de trabajadores en todas las jurisdicciones con una regla de beneficios insuficientemente gravados es el número total de trabajadores de todas las entidades constitutivas del grupo multinacional radicadas en una jurisdicción con una regla de beneficios insuficientemente gravados admisible en vigor en el período impositivo.

c) El valor total de los activos materiales en territorio español es igual a la suma del valor neto contable de los activos materiales de todas las entidades constitutivas del grupo multinacional radicadas en territorio español.

d) El valor total de los activos materiales en todas las jurisdicciones con una regla de beneficios insuficientemente gravados es la suma del valor neto contable de los activos materiales de todas las entidades constitutivas del grupo multinacional radicadas en una jurisdicción con una regla de beneficios insuficientemente gravados admisible en vigor en el período impositivo.

6. El número de trabajadores será el número de trabajadores en puestos equivalentes a jornada completa de todas las entidades constitutivas radicadas en la jurisdicción pertinente, incluidos los contratistas independientes, siempre que participen en las actividades ordinarias de funcionamiento de la entidad constitutiva.

Los activos materiales incluirán los activos materiales de todas las entidades constitutivas radicadas en la jurisdicción pertinente, pero no incluirán efectivo o medios de pago equivalentes al efectivo, ni los activos intangibles o financieros.

7. Los trabajadores cuyos costes salariales estén incluidos en la contabilidad financiera separada de un establecimiento permanente a tenor del apartado 1 del artículo 12 de esta norma foral, y ajustada de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 12 de esta norma foral, se atribuirán a la jurisdicción en la que radique el establecimiento permanente.

Los activos materiales incluidos en la contabilidad financiera separada de un establecimiento permanente a tenor del apartado 1 del artículo 12 de esta norma foral, y ajustada de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 12 de esta norma foral, se atribuirán a la jurisdicción en la que radique el establecimiento permanente.

El número de trabajadores y los activos materiales atribuidos a la jurisdicción de un establecimiento permanente no se tendrán en cuenta para el cálculo del número de trabajadores y activos materiales de la jurisdicción de la entidad matriz.

El número de trabajadores y el valor neto contable de los activos materiales ostentados por una entidad de inversión quedarán excluidos de la fórmula establecida en el apartado 5 de este artículo.

El número de trabajadores y el valor neto contable de los activos materiales de una entidad transparente quedarán excluidos de la fórmula mencionada en el apartado 5 de este artículo, a menos que se atribuyan a un establecimiento permanente o, a falta de establecimiento permanente, a las entidades constitutivas que radiquen en la jurisdicción en la que se haya creado la entidad transparente.

8. No obstante lo dispuesto en el apartado 5 anterior, el porcentaje de la regla de beneficios insuficientemente gravados de una jurisdicción para un grupo multinacional se considerará cero durante un período impositivo cuando el importe del impuesto complementario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados atribuido a dicha jurisdicción en un período impositivo anterior no hubiera dado lugar a que las entidades

eratzailak zergapetuta geratzen direla jurisdikzio horri aurreko zergaldiari dagokionez egotzi zaion zerga osagarriaren zenbatekoarekin.

Kasu horretan, behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelak zero portzentajea ematen badu jurisdikzio batean, jurisdikzio horretan kokatutako talde multinazionala osatzen duten entitateen langile kopurua eta aktibo materialen kontabilitate balio garbia ez dira kontuan hartuko zergaldi horretan behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregelatik ondorioztatutako zerga osagarriaren zenbatekoa talde multinazionalari egotzeko garaian.

9. Artikulu honen 8. apartatua ez zaio zergaldiari aplikatuko, baldin eta behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela bat zergaldi horretan indarrean duten jurisdikzio guztiei zero portzentajea ateratzen bazaie, zergaldi horretan eta talde multinazional baterako, behar beste zergapetu gabeko mozkinen erregela aplikatzean.

10. Artikulu honen aurreko apartatueta xedatutakoaren arabera Espainiako lurraldeari egotzen zaion zerga osagarriaren zenbatekoa foru arau honen 6. artikuluko 4. apartatuan aipatzen diren entitate eratzaileri egotzeko zaie, baldin eta entitate eratzaileri horiek foru arau honen 25.4 artikuluan definitutako titulazio entitate edo mekanismoak ez badira. Horretarako, artikuluko honen 5. apartatuan aipatutako formula aplikatuko da, hau da, zenbakitzailean entitate eratzaileri bakoitzaren langile kopurua eta aktibo material guztien balio osoa jarriko dira, eta izendatzailean, berriz, entitate eratzaileri guztien enplegatutako kopurua eta aktibo guztien balio osoa.

Aurrekoa gorabehera, baldin eta talde multinazionalaren parte diren entitateak, Espainiako lurraldean kokatuak, titulazio entitate edo mekanismoak hartzen badira, apartatu honetan aurreikusten den egozpena egiteko, artikuluko honen 5. apartatuan aipatutako formula aplikatuko da, hau da, zenbakitzailean entitate eratzaileri bakoitzaren langile kopurua eta aktibo material guztien balio osoa jarriko dira, eta izendatzailean, berriz, entitate eratzaileri guztien enplegatutako kopurua eta aktibo guztien balio osoa.

VI. KAPITULUA. ZERGA OSAGARRI NAZIONALA

30. artikulua. Zerga osagarri gehigarria.

1. Baldin eta, foru arau honen 10. artikuluko 7. apartatuan, 18. artikuluko 7. apartatuan, 21. artikuluko 1. eta 4. apartatueta, artikuluko honetako hurrengo 5. apartatuan eta 42. artikuluko 4. apartatuan jasotakoarekin bat etorritik, zerga estalian edo irabazi edo galera onargarrien doikuntza batek berekin badakar talde multinazionalaren edo tamaina handiko talde nazional baten zerga tasa efektiboa eta zerga osagarria berriro kalkulatzeko aurreko zergaldi baterako, kalkulu berria egiteko foru arau honen 14. artikuluan eta VII. tituluko II., III., IV. eta V. kapitulueta aurreko zergaldi horretarako ezarritako arauak aplikatuko dira. Kalkulu berriaren ondorioz zerga osagarriak duen gehikuntza kalkulu berria egiten den zergaldiko zerga osagarri gehigarritzat hartuko da foru arau honen 24. artikuluko 4. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako.

2. Zerga osagarri gehigarri bat sortzen bada eta zergaldian ez bada irabazi onargarri garbirik erregistratzen jurisdikzioan, jurisdikzio horretan kokatutako entitate eratzaileri bakoitzaren irabazi onargarriak zatiketa hau eginez kalkulatu dira: entitate eratzaileri horiei foru arau honen 24. artikuluko 5. eta 6. apartatuen arabera egotzi zaion zerga osagarri gehigarria zati gutxieneko zerga tasa.

constitutivas de dicho grupo multinacional radicadas en dicha jurisdicción estuvieran sujetas al importe del impuesto complementario asociado para dicho periodo impositivo anterior atribuido a dicha jurisdicción.

En ese caso, el número de trabajadores y el valor neto contable de los activos materiales de las entidades constitutivas de un grupo multinacional radicado en una jurisdicción con un porcentaje cero de la regla de beneficios insuficientemente gravados en un periodo impositivo quedarán excluidos de los elementos de la fórmula de atribución del importe total del impuesto complementario asociado a la regla de beneficios insuficientemente gravados al grupo multinacional en ese periodo impositivo.

9. El apartado 8 de este artículo no se aplicará al periodo impositivo si todas las jurisdicciones con una regla de beneficios insuficientemente gravados admisible en vigor en dicho periodo impositivo tienen un porcentaje cero de la regla de beneficios insuficientemente gravados para un grupo multinacional en dicho periodo impositivo.

10. El importe del impuesto complementario atribuido a territorio español de conformidad con lo dispuesto en los apartados precedentes de este artículo será atribuido a las entidades constitutivas a que se refiere el apartado 4 del artículo 6 de esta norma foral, siempre y cuando se trate de entidades constitutivas que no tengan la consideración de entidades o mecanismos de titularización definidos en el artículo 25.4 de esta norma foral, mediante la fórmula utilizada en el apartado 5 de este artículo, en la que el numerador se referirá al número de empleados y al valor total de los activos materiales de cada una de las entidades constitutivas y el denominador al número de empleados y al valor total de los activos para todas las mencionadas entidades constitutivas.

No obstante lo anterior, en el supuesto de que todas las entidades constitutivas del grupo multinacional radicadas en territorio español tengan la consideración de entidades o mecanismos de titularización, la atribución prevista en este apartado se realizará mediante la fórmula utilizada en el apartado 5 de este artículo, en la que el numerador se referirá al número de empleados y al valor total de los activos materiales de cada una de las entidades constitutivas y el denominador al número de empleados y al valor total de los activos para todas las mencionadas entidades constitutivas.

CAPÍTULO VI. IMPUESTO COMPLEMENTARIO ADICIONAL

Artículo 30. Impuesto complementario adicional.

1. Cuando, de conformidad con el apartado 7 del artículo 10, el apartado 7 del artículo 18, los apartados 1 y 4 del artículo 21, el apartado 5 siguiente de este precepto y el apartado 4 del artículo 42 de esta norma foral, un ajuste de los impuestos cubiertos o de las ganancias o pérdidas admisibles dé lugar a un nuevo cálculo del tipo impositivo efectivo y del impuesto complementario del grupo multinacional o del grupo nacional de gran magnitud para un periodo impositivo anterior, el tipo impositivo efectivo y el impuesto complementario se calcularán de nuevo con arreglo a las normas establecidas en el artículo 14, y en los capítulos II, III, IV y V del título VII de esta norma foral para dicho periodo impositivo anterior. El incremento del Impuesto Complementario derivado del nuevo cálculo, se considerará un impuesto complementario adicional a efectos del apartado 4 del artículo 24 de esta norma foral del periodo impositivo durante el cual se efectúe el nuevo cálculo.

2. Cuando se devengue un impuesto complementario adicional y no se registren ganancias admisibles netas en la jurisdicción en el periodo impositivo, las ganancias admisibles de cada entidad constitutiva que radique en dicha jurisdicción serán el resultado de dividir el impuesto complementario adicional atribuido a dichas entidades constitutivas, de conformidad con los apartados 5 y 6 del artículo 24 de esta norma foral, entre el tipo impositivo mínimo.

3. Gertatzen bada ezen, foru arau honen 17. artikuluko 5. apartatuarekin bat etorritz, zergadunak zerga osagarri gehigarri bat zor duela, jurisdikzioan kokatutako entitate eratzaille bakoitzaren irabazi onargarriak entitate eratzaille horri egotzitako zerga osagarri gehigarria zati gutxieneko zerga tasa eginez kalkulatuko dira. Egozpena entitate eratzaille bakoitzari egingo zaio, eta haren zenbatekoa honela kalkulatu da: batetik, entitate eratzaillearen irabazi edo galera onargarriak bider gutxieneko zerga tasa egingo da, eta biderkadura horretatik entitate eratzaillearen zerga estali doitu zenbatekoa murriztuko da; bestetik, entitate eratzaille guztien irabazi edo galera onargarriak bider gutxieneko zerga tasa egingo da, eta, biderkadura horretatik entitate eratzaille guztien zerga estali doitu zenbatekoa murriztuko da; bi zenbateko horien arteko zatiketarik ateratzen den portzentajea izango da egotzi beharrekoa.

Zerga osagarri gehigarria entitate eratzaillei egotziko zaie, soil-soilik, baldin eta beren zerga estali doitu zenbatekoak emaitza negatiboa duenean eta zenbateko hori entitate eratzaillearen irabazi edo galera onargarriak bider gutxieneko zerga tasa eginez ateratzen dena baino txikiagoa denean.

4. Entitate eratzaille bati zerga osagarri bat egotzen bazaio artikuluko honetan eta foru arau honen 24. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan jasotako arabera, entitate eratzaille hori zergapez maila txiki entitate eratzailletzat hartuko da foru arau honen ondorioetarako.

5. Beste jurisdikzio bateko zerga osagarri nazional onargarriaren zenbatekoa, osoa zein partziala, ez bada ordaindu exijigarria zen zergaldia amaitu eta hurrengo lau zergaldietan, ordaindu gabeko zergaren zenbatekoa foru arau honen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga osagarriaren kuotari gehituko zaio, eta, (EB) 2022/2523 Zuzentarauaren 11.3 artikuluan xedatutakoaren indarrez, hura ezingo da bildu exijitu zen jurisdikzioan.

VIII. TITULUA

ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

31. artikulua. Zergaldia.

Talde multinazional baten edo tamaina handiko talde nazional baten parte diren entitateen zerga osagarriaren zergaldia talde horien azken entitate nagusiaren ekitaldi ekonomikoa izango da, entitate horrek finantza egoera-orri bateratuak egiten baditu; bestela, zergaldia urte naturala izango da.

32. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zerga osagarriaren sortzapena zergaldiko azken egunean izango da.

IX. TITULUA

ZERGA OSAGARRIA EXIJIGARRIA EZ IZATEA

33. artikulua. Minimisen salbuespena.

1. Foru arau honen 14., 22., 23., 24., 30. eta 46. artikuluetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, aitortzen duen entitate eratzailleak artikuluko honetan aurreikusitako aukera egiten badu, jurisdikzio batean kokatutako entitate eratzaillei dagokien zerga osagarria zero izango da baldintza hauek betetzen diren zergaldian:

a) Jurisdikzio horretan kokatutako entitate eratzaillearen diru-sarrera onargarrien batez bestekoa 10 milioi eurotik beherakoa izatea; eta

b) Entitate eratzaille guztiek jurisdikzio horretan izandako irabazi edo galera onargarrien batez bestekoak milioi bat eurotik beherako galera edo irabazia ekartzea.

3. Cuando, de conformidad con el apartado 5 del artículo 17 de esta norma foral, se adeude un impuesto complementario adicional, las ganancias admisibles de cada entidad constitutiva radicada en la jurisdicción serán el resultado de dividir el impuesto complementario adicional atribuido a dicha entidad constitutiva por el tipo impositivo mínimo. La atribución se efectuará a cada entidad constitutiva, atendiendo al porcentaje que resulte de dividir las ganancias o pérdidas admisibles de la entidad constitutiva multiplicadas por el tipo impositivo mínimo, y dicho producto minorado en el importe de los impuestos cubiertos ajustados de la entidad constitutiva, entre las ganancias o pérdidas admisibles de todas las entidades constitutivas multiplicadas por el tipo impositivo mínimo, y dicho producto minorado en el importe de los impuestos cubiertos ajustados de todas las entidades constitutivas.

El impuesto complementario adicional solo será atribuido a las entidades constitutivas que registren un importe de impuestos cubiertos ajustados negativo e inferior al producto de las ganancias o pérdidas admisibles de dichas entidades constitutivas por el tipo impositivo mínimo.

4. Cuando a una entidad constitutiva se le atribuya un impuesto complementario adicional de conformidad con el presente artículo y con los apartados 5 y 6 del artículo 24 de esta norma foral, dicha entidad constitutiva se considerará entidad constitutiva con un nivel impositivo bajo a efectos de esta norma foral.

5. Cuando el importe, total o parcial, del impuesto complementario nacional admisible, de otra jurisdicción, no hubiera sido satisfecho en los cuatro periodos impositivos siguientes a la finalización del periodo impositivo en el que resultó exigible, el importe del impuesto no satisfecho se adicionará a la cuota del impuesto complementario determinada de conformidad con lo establecido en el artículo 24 de esta norma foral, cuyo importe en virtud de lo dispuesto en el artículo 11.3 de la Directiva (UE) 2022/2523 no será recaudado por la jurisdicción en la que resultó exigible.

TÍTULO VIII

PERÍODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

Artículo 31. Período impositivo.

El período impositivo del Impuesto Complementario de las entidades constitutivas de un grupo multinacional o grupo nacional de gran magnitud coincidirá con el ejercicio económico de la entidad matriz última del grupo multinacional o del grupo nacional de gran magnitud si elabora estados financieros consolidados o, en su defecto, coincidirá con el año natural.

Artículo 32. Devengo del impuesto.

El Impuesto Complementario se devengará el último día del período impositivo.

TÍTULO IX

NO EXIGIBILIDAD DEL IMPUESTO COMPLEMENTARIO

Artículo 33. Exclusión de minimis.

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 14, 22, 23, 24, 30 y 46 de esta norma foral, si la entidad constitutiva declarante ejercita la opción prevista en este artículo, el impuesto complementario que corresponda a las entidades constitutivas que radiquen en una jurisdicción será cero, en el periodo impositivo en el que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Que la media de los ingresos admisibles de las entidades constitutivas radicadas en dicha jurisdicción sea inferior a 10 millones de euros; y

b) Que la media de las ganancias o pérdidas admisibles de todas las entidades constitutivas en dicha jurisdicción, dé lugar a una pérdida o un beneficio inferior a un 1 millón de euros.

Apartatu honetan aurreikusitako aukera urtero egin beharko da, foru arau honen 49. artikuluko 2. apartatuan jasotakoaren arabera.

2. Diru-sarrera onargarriei buruz eta irabazi edo galera onargarriei buruz aurreko apartatuan aipatu diren batez bestekoak kalkulatzeko, uneko zergaldia eta aurreko biak hartuko dira kontuan.

Aurreko bi zergaldietako batean, ez badago jurisdikzioan diru-sarrera onargarriak edo galera onargarriak izan dituen entitate eratzailerik, zergaldi hori ez da kontuan hartuko jurisdikzio horretako diru-sarrera onargarrien batez bestekoa edo galera onargarrien batez bestekoa kalkulatzeko.

3. Jurisdikzio bateko entitate eratzailleek zergaldi batean izandako diru-sarrera onargarrien zenbatekoa jurisdikzio horretan kokatutako entitate eratzaille bakoitzaren diru-sarreraren zenbateko garbiaren batura izango da, betiere foru arau honen 9. artikulutik 13. artikulura bitartean xedatutako doikuntzak egin ondoren.

4. Jurisdikzio batean dauden entitate eratzailleek zergaldian izandako irabazi edo galera onargarriak jurisdikzio horretako irabazi edo galera onargarri garbiak izango dira, foru arau honen 22. artikuluaaren arabera kalkulatuak.

5. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ez egoitzarik gabeko entitate eratzaillei eta ez inbertsio entitateei. Entitate horien diru-sarrera onargarrien eta irabazi edo galera onargarrien zenbatekoa ez da kontuan hartuko artikulu honetan minimisei buruz aurreikusitako salbuespena kalkulatzeko.

34. artikulua. Zerga Osagarria exijigarria ez izatea.

1. Foru arau honen 6. artikuluko 3. apartatuan adierazitako zergadunei Europar Batasuneko beste estatu batean kokatuak dituzten entitate eratzaillei dagokienez zergaldian aplikatuko zaien zerga osagarri primarioa zero izango da, baldin eta estatu kide horrek zerga osagarri nazional onargarri bat exijitzen badu zergaldian eta hura zehazteko garaian azken entitate nagusiaren finantza kontabilitateko arau onargarria edo informazio finantzarioari buruzko nazioarteko arauak aplikatu badira (izan nazioarteko IFNA arauak izan Europar Batasunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera (nazioarteko kontabilitate arauak aplikatzeari buruzko erregelamendua) onetsitako IFNA arauak). Alabaina, salbuespen hori ez da aplikatuko foru arau honen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera exijitzekoa den zerga osagarri gehigarriaren zatiagatik, zerga osagarri nazional onargarri horretan sartu ez denean.

2. Foru arau honen 6. artikuluko 3. apartatuan adierazitako zergadunek entitate eratzailleak badituzte beste jurisdikzio batean eta entitate horiek zerga osagarri nazional bati lotuta badaude jurisdikzio horretan, zergadun horiei zergaldian aplikatuko zaien zerga osagarri primarioa zero izango da jurisdikzio horrek zerga osagarri nazional onargarri bat exijitzen duenean eta harekin bermatzen denean zerga horri lotutako entitate eratzailleen zerga tasa efektiboak portu seguruei buruzko nazioarteko akordio onargarri baten baldintzak betetzen dituela.

3. Entitate eratzailleak «portu seguruei buruzko nazioarteko akordio onargarri» baten baldintzak betetzen dituen jurisdikzio batean daudenean, foru arau honen 6. artikuluan adierazitako zergadunek zergaldian aplikatuko zaien zerga osagarria zero izango da, nazioarteko akordio horretan ezarritako terminoetan.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, «portu seguruei buruzko nazioarteko akordio onargarritzat» hartuko da jurisdikzio guztiek onartu dituzten nazioarteko arau eta baldintzen multzoa, zeinaren bidez bermatzen baita ELGaren Ereduzko Arauen aplikazio eremuan dauden taldeek portu seguru bat edo gehiago izateko aukera ahalbidetzen dela.

El ejercicio de la opción prevista en este apartado se realizará anualmente, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 49 de esta norma foral.

2. Para el cálculo de la media de los ingresos admisibles y de la media de las ganancias o pérdidas admisibles a que se refiere el apartado anterior se tendrán en cuenta el periodo impositivo en curso y los dos periodos impositivos anteriores.

Si en alguno de los dos periodos impositivos anteriores no hubiera ninguna entidad constitutiva radicada en la jurisdicción con ingresos admisibles o pérdidas admisibles, dicho periodo impositivo se excluirá del cálculo de la media del importe de los ingresos admisibles o del importe de la media de las ganancias o pérdidas admisibles de dicha jurisdicción.

3. El importe de los ingresos admisibles de las entidades constitutivas de una jurisdicción y de un periodo impositivo, será la suma del importe neto los ingresos de cada una de las entidades constitutivas que radiquen en dicha jurisdicción, realizando los ajustes que correspondan de conformidad con lo dispuesto en los artículos 9 a 13 de esta norma foral.

4. Las ganancias o pérdidas admisibles de las entidades constitutivas radicadas en una jurisdicción en el periodo impositivo serán las ganancias o pérdidas admisibles netas de dicha jurisdicción, calculadas de conformidad con el artículo 22 de esta norma foral.

5. Lo dispuesto en este artículo no se aplicará a las entidades constitutivas sin residencia ni a las entidades de inversión. El importe de los ingresos admisibles y de las ganancias o pérdidas admisibles de dichas entidades no se tendrá en cuenta a efectos del cálculo de la exclusión de minimis prevista en este artículo.

Artículo 34. No exigibilidad del Impuesto Complementario.

1. El impuesto complementario primario respecto de las contribuyentes señaladas en el apartado 3 del artículo 6 de esta norma foral, en relación con sus entidades constitutivas radicadas en otro Estado miembro, será cero en el periodo impositivo, cuando ese Estado miembro exija un impuesto complementario nacional admisible que se haya determinado en el periodo impositivo de conformidad con la norma de contabilidad financiera aceptable de la entidad matriz última o con las normas internacionales de información financiera (NIIF o NIIF adoptadas por la Unión de conformidad con el Reglamento (CE) n.º 1606/2002 del Parlamento Europeo y de Consejo, de 19 de julio de 2002, relativo a la aplicación de normas internacionales de contabilidad), excepto por la parte de aquel impuesto complementario adicional que proceda en virtud de lo dispuesto en el artículo 30 de esta norma foral que no se haya incluido en el mencionado impuesto complementario nacional admisible.

2. El impuesto complementario primario respecto de las contribuyentes señaladas en el apartado 3 del artículo 6 de esta norma foral, en relación con sus entidades constitutivas que estén sujetas a un impuesto complementario nacional en otra jurisdicción, será cero en el periodo impositivo, cuando dicha jurisdicción exija un impuesto complementario nacional admisible que garantice que el nivel impositivo efectivo de las entidades constitutivas sujetas a dicho impuesto cumpla las condiciones de un acuerdo internacional admisible sobre puertos seguros.

3. El impuesto complementario de las contribuyentes señaladas en el artículo 6 de esta norma foral, en relación con aquellas entidades constitutivas radicadas en una jurisdicción que cumpla las condiciones de un «acuerdo internacional admisible sobre puertos seguros», será cero en el periodo impositivo, en los términos establecidos en dicho acuerdo internacional.

4. A efectos de lo dispuesto en los apartados 2 y 3 de este artículo, se entenderá por «acuerdo internacional admisible sobre puertos seguros» un conjunto internacional de normas y condiciones que todas las jurisdicciones han aceptado y que garantice a los grupos incluidos en el ámbito de aplicación de las Normas Modelo de la OCDE la posibilidad de optar por beneficiarse de uno o más puertos seguros para una jurisdicción.

X. TITULUA

ARAU BEREZIAK

I. KAPITULUA. ENPRESEN BERREGITURATZEAK ETA
BATERAKO NEGOZIOAK

35. artikulua. Berregituratze, bat-egite eta zatiketa eragiketak aplikatzeko atalasea zehaztea.

1. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa hauek bereiziko dira:

a) «Bat-egitea»:

i) Bereizita dauden bi talde edo gehiagoko entitate guztiak edo gehienak kontrol komun baten menpe jartzea, talde konbinatu bateko entitateak izateko.

ii) Talde bateko kidea ez den entitate bat kontrol komun baten menpe jartzea beste entitate batekin edo beste talde batekin batera, talde konbinatu bateko entitateak izateko.

b) «Zatiketa»: talde bereko entitateak bi taldetan edo gehiagotan banatzea, eta orain arteko azken entitate nagusiak horiek jada ez kontsolidatzea.

2. Foru arau honen 6. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den negozio zifraren zenbateko garbia bi taldek edo gehiagok bat egin ondoren sortutako taldeek lortutakoa dela joko da, baldin eta bat-egindako talde bakoitzaren finantza egoera-orri bateratuetan jasotzen den negozio zifraren zenbateko garbi guztien batura, 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada bat-egitea gauzatu den zergaldiaren aurreko lau zergaldietatik bitan.

3. Talde bateko kidea ez den entitate batek («entitate eskuratuak», aurrerantzean) bat egiten badu entitate batekin edo talde batekin («entitate eskuratua», aurrerantzean), eta ez entitate eskuratuak ez entitate eskuratuak ez badute finantza egoera-orri bateraturik formulatu bat-egitea egin den zergaldiaren aurreko lau zergaldi jarraituetako batean, eragiketa horretatik ondorioztatzen den taldea zergaldi horretako zergaren aplikazio eremuan sartuko da, baldin eta epealdi horretako egoera-orri finantzario bakoitzean edo egoera-orri finantzario bateratuetan jasotako negozio zifraren zenbateko garbiaren batura 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada.

4. Zergaren aplikazio eremuko entitate talde bat bi taldetan edo gehiagotan banatzen denean, banatutako talde bakoitzak aplikazio eremuaren barruan jarraitzen duela ulertuko da baldin eta:

i) Zatiketa eragiketa egiten den zergaldiaren ondorengo lehen zergaldian, banatutako taldearen negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada.

ii) Zatiketa eragiketa egiten den zergaldiaren ondorengo bigarren zergalditik laugarrenera bitartean, banatutako taldearen negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa edo handiagoa bada gutxienez hiru zergaldi horietako bitan.

36. artikulua. Entitate eratzaileak talde multinazional baten edo tamaina handiko talde nazional bateko kide izatea edo kide izateari uztea.

1. Entitate eratzaile bat talde multinazional bateko edo tamaina handiko talde nazional bateko kide bihurtzen denean, edo taldeko entitate batean zuzenean edo zeharka daukan partaidetza eskualdatzeagatik talde horretako kide izateari uzten dionean, edo eskurapena egiten den zergaldian talde berri baten azken entitate nagusi bihurtzen denean, entitate eratzailearen zerga tasa efektiboa eta zerga osagarria kalkulatzeko honako erregelak aplikatuko dira:

TÍTULO X

REGÍMENES ESPECIALES

CAPÍTULO I. REESTRUCTURACIÓN EMPRESARIAL Y
NEGOCIOS CONJUNTOS

Artículo 35. Determinación del umbral de aplicación de operaciones de reestructuración, fusión y escisión.

1. A los efectos de lo dispuesto en este artículo, tendrán la consideración de:

a) «Fusión» todo acuerdo en el que:

i) La totalidad o mayor parte de las entidades de dos o más grupos separados se sometan a un control común de forma que constituyan entidades de un grupo combinado.

ii) Una entidad que no sea miembro de grupo alguno se someta a un control común con otra entidad o grupo de forma que constituyan entidades de un grupo combinado.

b) «Escisión» todo acuerdo en el que las entidades de un mismo grupo se dividan en dos o más grupos diferentes que ya no estén consolidados por la misma entidad matriz última.

2. El importe neto de la cifra de negocios a que se refiere el apartado 1 del artículo 6 de esta norma foral se entenderá alcanzado por los grupos resultantes de la fusión de dos o más grupos siempre y cuando el sumatorio del importe neto de la cifra de negocios de los grupos fusionados incluido en cada uno de sus estados financieros consolidados sea igual o superior a 750 millones de euros en dos de los cuatro últimos periodos impositivos anteriores al período impositivo en que se lleva a cabo la fusión.

3. Cuando una entidad que no sea miembro de un grupo (en lo sucesivo, «entidad adquirente») se fusione con una entidad o un grupo (en lo sucesivo, «entidad adquirida»), y ni la entidad adquirida ni la entidad adquirente hayan formulado estados financieros consolidados en alguno de los cuatro últimos periodos impositivos consecutivos inmediatamente anteriores al período en que se lleva a cabo la operación de fusión, el grupo resultante de la referida operación entrará a formar parte del ámbito de aplicación del impuesto en dicho período impositivo si la suma del importe neto de la cifra de negocios incluidos en cada uno de sus estados financieros o en los estados financieros consolidados en ese período es igual o superior a 750 millones de euros.

4. Cuando un grupo de entidades que forme parte del ámbito de aplicación del impuesto se escinda en dos o más grupos, se considerará que cada grupo escindido sigue formando parte del ámbito de aplicación si:

i) En el primer período impositivo posterior al período impositivo en que se lleva a cabo la operación de escisión, el importe neto de la cifra de negocios del grupo escindido es igual o superior a 750 millones de euros.

